# Herritarren Batzar txiki baterako egutegia




## 1. Fasea: Herritarren Batzarra aurretik

*2023ko martxoa – 2023ko iraila (adibidea)*

| Datak | Helburuak | Atazak |
|---|---|---|
| 2023ko martxoa – maiatza | Herritarren Batzarraren konpromisoa eta babesa bermatzea | - Herritarren Batzarrak erabaki publikoetan eragina izan dezan eta momentu egokia izan dadin bermatzea<br>- Aldez aurretik elkarrizketak egitea eragile interesdun nagusiekin<br>- Alderdi edo erakunde guztiek Batzarrari laguntza emango diotela bermatzea<br>- Herritarren Batzarraren funtzionamendurako behar diren baliabideak bermatzea |
| 2023ko martxoa - maiatza | Herritarren Batzarrak jorratuko duen gaia definitzea | - Herritarren deliberazioak erantzunak bilatzen lagundu dezakeen arazo larri bat identifikatzea<br>- Herritarrek landu dezaketen galdera gisa zehaztea |
| 2023ko maiatza - ekaina | Lan taldea hautatu eta lanean hastea | - Lan taldea kontratatzeko lizitazio deialdia zabaltzea<br>- Herritarren Batzarra gauzatuko duen lan taldea izendatzea |
| 2023ko ekaina | Batzordeak eta barne taldeak sortzea | Taldeak sortu:<br>1. Proiektu taldea<br>2. Adituen gainbegiratze/aholkularitza taldea<br>3. Edukien taldea<br>4. Komunikazio taldea |

| Datak | Helburuak | Atazak |
|---|---|---|
| 2023ko ekaina | Herritarren Batzarraren diseinua | <u>Proiektu taldea eta lan taldeak</u><br>- Herritarren Batzarra prestatzean erantzun beharreko antolaketarako galderak eta meta-diseinua erabakitzea, zehazki ondorengoak: batzarkideen kopurua, horiek hautatzeko irizpideak, ordainsaria, prozesuaren iraupena<br>- Herritarren Batzarraren ebaluazioaren eskaera egitea |
| 2023ko uztaila - iraila | Ikasketa-faseko eta deliberazio-faseko materialak prestatzea | <u>Eduki taldea</u><br>- Herritarren Batzarrean edukiak aurkeztuko dituzten eragile eta adituak identifikatzea<br>- Batzarkideei informazioa azalduko dien eragile, aritu eta adituak aukeratzea<br>- Herritarren Batzarren informazio kit-ean informazio iturriak zeintzuk diren erabakitzea<br><br><u>Sustatzailea</u><br>- Aukeratutako eragile, aritu zein adituak gonbidatu batzarkideei zein ebidentzia aurkeztu behar zaizkien bildatzeko<br>- Aukeratutako eragileak, arituak eta adituak Herritarren Batzarrean ofizialki parte hartzera gonbidatu<br>- Informazio kit-ean erakundearen lanari, helburuei, ikuspegiari eta lehentasunei buruzko informazioa jaso<br><br><u>Lan taldea</u><br>- Eragileen eta edukien hautaketa batzordearen bilerak antolatzea<br>- Eragileekin eta adituekin harremanetan jartzen eta gonbidatzen laguntzea<br>- Informazio kit-a sortu<br>- Informazio fasearen koherentzia orokorra bermatzea<br>- Errazte plan bat garatu<br>- Herritarren Batzarraren alderdi logistikoak antolatzea |
| 2023ko iraila | Egitasmoa abiatzeko aurkezpen ofiziala / Prentsa agerraldia | <u>Komunikazio taldea</u><br>- Batzarra eta gaia aurkezteko, eta jendea erakartzearen prentsaurrekoa antolatzea<br>- Herritarren Batzarraren komunikazio-estrategia prestatzea<br>- Herritarren Batzarra iragartzeko prentsa oharra zabaltzea |
| 2023ko iraila-urria | Parte hartzeko gonbidapenak bidaltzea (zozketa bidez hautatukoei) | <u>Lan taldea</u><br>- Proiektu taldearekin batera gonbidapen gutuna idaztea<br>- Herritarren Batzarra sustatuko erakunde publikoan ardura duen agintaritzako zuzendariak batzarreko kide izan daitezkeenek jasoko duten gonbidapen-gutuna sinatuko du.<br>- Erakunde sustatzailearekin batera gonbidapen gutunak bidaltzea<br>- Gonbidatuak izan diren herritarren erantzunak kudeatzea<br>- Batzarkideen azken taldea aukeratzea<br>- Batzarkideen edozein galderari erantzuteko eta laguntza emateko prest egotea (bidaiei, behar bereziei edo bestelako eskaerak) |

## 2. Fasea: Herritarren Batzarrean zehar

*2023ko urria – 2023ko azaroa (Adibidea)*

| Datak | Helburuak | Atazak |
|---|---|---|
| 2023ko urria-azaroa | Herritarren Batzarra 4-5 egunez egiten da, bi hilabetez | Lan taldea<br>- Herritarren Batzarra gauzatzea<br>- Herritarren Batzarra koordinatzeko eta errazte-taldea zuzentzeko ardura izatea<br>- Batzarkideei gomendioak idazten eta edizio prozesua kudeatzen laguntzea<br>- Herritarren Batzarraren prozesuaren laburpena idaztea eta azken txostena profesionala eta egokia dela bermatzea<br><br>Komunikazio taldea<br>- Prozesuaren berri ematea prozesu osoan zehar<br>- Herritarren Batzarreko saio plenarioak zuzenean ematea<br>- Kazetariekin harremana |

## 3. Fasea: Herritarren Batzarraren ostean

*2023ko Abendutik aurrera*

| Datak | Helburuak | Atazak |
|---|---|---|
| 2023ko abendua | Herritarren Batzarreko batzarkideen gomendioei erantzutea | Erakunde sustatzailea<br>- Herritarren Batzarrak prestatutako gomendioak jasotzea (aurrez aurreko saioa)<br>- Herritarren Batzarreko batzarkideei lehen erantzuna ematea |
| 2024ko urtarrila - otsaila | Erakunde sustatzailearen erantzun idatzia | Erakunde sustatzailea<br>- Gomendioei buruz eztabaidatzea eta hausnartzea<br>- Zein gomendioa eta nola gauzatuko diren erabakitzea<br>- Herritarren Batzarreko gomendioen erantzuna idatzi eta batzarkideei bidali<br>- Herritarren Batzarra, gomendioak eta horien erantzunak jasotzeko txostena webgunean argitaratzea |
| 2024ko urtarriletik aurrera | Herritarren Batzarraren gomendioak erakunde sustatzileak gauzatzea | Erakunde sustatzailea<br>- Gomendioak inplementatzeko plana prestatzea<br>- Gomendioak inplementatzen hasi<br>- Gomendioen inplementazioaren inguruko informazioa aldika ematea. Batzarra egin eta 3 hilabetera eta, ondoren, 6 hilean behin |

## Nola egin dokumentuaren erreferentzia:

DemocracyNext (2023), "Timeline for a small Citizens' Assembly", Assembling an Assembly Guide, https://assemblyguide.demnext.org/.